

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Alkatearen ebazpena, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu batean administrari laguntzailearen lanpostu baterako izendapen proposamena egiteko eta dokumentazioa eskatzeko

Alkatearen azaroaren 18ko 72/2024 Ebazpenaren bidez, Iruraiz-Gaunako Udaleko administrari laguntzaile bat karrerako funtzionario izendatzeko proposamena egin eta dokumentazioa eskatu zen (2023/2/S02.04.02.02 espedientea), honako eduki honekin:

Aztertu da administrari laguntzaile bat hautatzeko prozedura, 20/2021 Legearen 6. xedapen gehigarriaren ondoriozko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren barruan.

Aurrekari hauek ikusi dira:

AGIRIAREN DATA

Negoiazio kolektiboko mahaiaren akta, 2022ko azaroaren 18koa.

Idazkaritza-kontuhartzaitzaren txostena, 2022ko abenduaren 16koa.

Deialdia eta aldi baterako egonkortze prozesua arautuko duten oinarri orokorrak eta espezifikoa, 2022ko abenduaren 16koa.

Alkatearen 323/2022 Ebazpena, 2022ko abenduaren 16ko deialdia eta oinarriak onesten dituen.

ALHAOko iragarkia, 2022ko abenduaren 26koa.

BOEko iragarkia, 2023ko maiatzaren 15ekoa.

Alkatearen ebazpena, 2023ko azaroaren 23koa, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratzen eta merezimenduak egiaztatzeko errekerimendua egiten duena.

Behin-behineko kalifikazioen epaimahaiaren akta, 2024ko urriaren 3koa.

Behin betiko kalifikazioen epaimahaiaren akta eta hautatutako hautagaiaren proposamena, 2024ko azaroaren 7koa.

Ikusi da epaimahai kalifikatzaileak 2024ko azaroaren 7an egindako akta. Bertan, izangaien behin betiko kalifikazioak onartu ziren, behin-behineko kalifikazioen baldintza berberetan. Guz-tirako puntuazio eta lehentasun ordena hau izan zen:

| ORDENA ZK. | IZANGAIAREN IZENA | NANA | PUNTUAK GUZTIRA |
|------------|--|------------|--------------------|
| 1 | JULIA OLGA MORAZA LÓPEZ DE SUBIJANA | 16**** 35G | 90.0 |
| 2 | M ^a CARMEN DIAZ DE ALDA SANCHEZ | **** 3944M | 0.0 |

13. eta 6. oinarri orokorren arabera, hautatutako pertsonak eta esleitu beharreko lanpostuak ALHAOn, udaletxeko iragarki taulan eta udal web orrian argitaratuko dira.

14. oinarri orokorraren arabera, proposatutako izangaiak hautaketa prozesuan parte hartzeko egiaztariak aurkeztu beharko ditu udaletxeko erregistroan, 20 laneguneko epean, gaindituen zerrenda argitaratzen denetik kontaktzen hasita.

Horiek horrela eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.s) artikuluan esleitutako eskumenekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. Behin betiko kalifikazioen lehenetasun ordenan lehenengo dagoen izangai Julia Olga Moraza López de Subijana proposatzea, Iruraiz-Gaunako Udaleko administrari laguntzaile lanposturako karrerako funtzionario izendatzea, hautaketa prozesua gainditu ondoren.

BIGARRENA. Proposamen hau ALHAOn, udaletxeko iragarki taulan eta udal web orrian argitaratzea, eta 20 egun balioduneko epea ematea, argitaratzen denetik aurrera, hautaketa prozesuan parte hartzeko baldintzen egiaztagiriak aurkez ditzan, 14. oinarri orokorraren arabera.

HIRUGARRENA. Izangaiak dokumentazioa aurkeztu ondoren, karrerako funtzionario izendatzeko alkatearen beste ebazpen bat emango da, eta, ondoren, lanpostuaz jabetzeko akta izenpetuko da.

LAUGARRENA. Erabaki honen aurka interesdunek aukerako berraztertze errekurtsa aurkeztu ahal izango diote Iruraiz-Gaunako Udaleko alkateari, administrazioarekiko auzi-errekurtsa jarri aurretik, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Azilu, 2024ko azaroaren 18a

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA